

` ` Black Patterns ´ ´

Karlos Martinez

2021eko martxoak 5 - maiatzak 7

CarrerasMugica

Patroi hitzak hainbat adiera ditu, eta hauek dira horietako batzuk: defendatzailea, babesle bezala aukeratua, jabea edo nagusia, mirabe batek zerbitzatzen duen pertsona, agintzen duen pertsona edo baita zerbait berdin kopiaitzeko balio duen eredu ere.

Black Patterns izenburuak, bertan erakutsitako obra guztiak zeharkatzen dituen prozesuari egiten dio zuzenki erreferentzia. <<Patroigintzatik>> sortzen da ekoizpena, planotik lan eginaz, gero bolumenera altxatzeko.

Ariketa honek obrak marrazkitik proiektatzera eramanez, gero hiru dimentsiotako objektu batean hezurramitzeko; eskulturan. Lehenbizi diseinuarekin lan egiten duen eskultorea naiz (eremu horretan dudan formakuntzagatik beharbada); ez naiz material zati bat hartu eta haren gainean modelatzen duen artista bezalakoa; ez hasieran behintzat. Gustatzen zait pentsamenduak azkenik ideia bat gauzatzera iritsi ahal izateko bidea planteatzen dueneko dimentsio hori. Espektatiba honek bere izaera behartzen du, teknikaren eta intuizioaren artean, eta proiektatutako ideien eta haren eraikitze-fasearen artean sortzen diren erabakiak hartu ahala. Materialen aukeraketak metodologia horri jarraitu behar zion, eta haien zerrenda mugatu batekin lan egitea erabaki nuen horregatik, materialen ezaugarrien alde oso jakin eta zehatzetan zentratuz. Ezaugarri horiek, nagusiki malgutasunak, egiteko prozesua baldintzatuko lukete, erotizatzen nauten objektu eta arketipoetan topatzen ditudan elementuei aurre eginez, nigan espasmo irrazional baten antzeko sentsazioa sortzen dutelarik bizitza seinale bezala, pentsatzeko modu instintibo batera hurbilduz. Berau jaio, garatu, transmititu, desagertu, eraldatu eta berragertu egiten da, lengoaiaren trebeziak eta mitologia garaikideen lur emankorrak lagunduta. Aitortu behar dut, prozesuko momentu batzuetan oso frustragarria gertatu zitzaidala guzti hau, teknikoki sortzen zidan ezinegonagatik, neure buruari nik hartu beharreko lekua zein zen galdetzeko erronka joz: erlazioaren gainean edo azpian, etengabe arreta jarritz nire desiraren eta materialaren bizitzaren arteko negoziazioari. Geroago, edo agian lehenago, beltza dago; patroia bat, kolore bat, erakusketa zeharkatzen duen pertzepzio monokromo bat.

Hiru taldetan zatitzen da berau, hiru espazioen bidez:

Black Patterns, erakusketaren izenburua izateaz gain, Estudioan dagoen multzo homonimoari erreferentzia egiten dion izena ere bada. Obra hauetan ez nuen buruan jantzi bat egitea, egitura bat erantzutea baizik, azalaren erorketa ikusiz, Wilhelm Lembuck-en figuretan gertatzen den bezala. Larruzko piezekin egindako gorputz multzo bat erakusten du instalazioak, eta mozketak, brodatu eta zeharkatzen dituzten metalezko kremailera askoren bidez elkartzen dira. Sapaia eta zorua artean lebitatzen duten zutabe modura instalatuta daude eskulturak, piezetako bat hormara eramana izan den bitartean, sortzeko baliatu zuen jatorrizko planora itzuliz.

Galeriako Hallelan, material berarekin egindako bi obra multzo antolatuta dira, zuloa esploratzeko asmoz eginak: ulertzeko zaila den entitatea, geure inguruan oso presentea, zirrikituak direlarik gertera kausalak martxan jar-tzen dituztenak, gorputz asko elkartzen dituzten zeharkagarriak, eta kone-xio berrien sorkuntzan laguntzen dutenak. *Nothing Young* gomaz eraikia dago, “NY” logotipoaren trokelaketa duten piezekin. Lokarriekin hainbat aldetatik elkartzerakoan ikonoa deformatu egiten da, jatorrizko iruditik urrutiratu eta beste forma batzuk iradokiz. Aldi berean, espazio berean erakusten da *Gradiens* saila (#1, #2, #3 eta #4). Gomazko lau xafla, euskarritik bereiztera heltzen ez diren mozketen bidez eraldatuak, haietatik zintzilik. Begiratzera bakarrik ez, ikusia izatera ere gonbidatzen duten irekierak dira. Haietako batzuk bernizez lakatuak izan dira, erritmo bat markatuz.

Amaitzeko, lan bat burutu da ad hoc galeriako teilatu laurako. Nire desira baino handiagoa zen zerbait burutu nahi izan nuen horrekin, asebetetzeko zaila izango zen espektatiba bat, neure burua haren prozesua birplanteatzera behartuz. Olan zurizko tapaki bat sortu nuen, argi-zuloetako bat estaltzeko. Kanpoaldean jarrita egoterakoan, euriak, argiak eta hautsak haren gainazalari eragiten diote, bere kolorea eraldatuz eta kontrako kolorera gerturatuz. Lan honetan erlazio zuzena dago gorputzarekin, espazioarekin eta begiradarekin, eta hori dela eta, instalatu ondoren lekuan bertan argazki sail bat egitea erabaki nuen, giza figura eta arkitektura kontrajarritik, eta oraingo honetan Alvin Baltrop argazkilariaren obra erabiliz patroia modura.

Karlos Martinez B. (Bilbo, 1982) Durango eta Madril artean bizi da, eta haietan lan egiten du. Historia eta Geografia (UNED) eta Diseinu Grafiko (I.D Arte eta Diseinu Eskola) ikasketak eginondotik, proiektu ezberdinak garatu ditu, bere lana honako testuinguruetan erakutsiz: Guggenheim Bilbao Museoa, AzkunaZentroa, Bulegoa Z/B, Rekalde Aretoa, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa, Koldo Mitxelena Kulturunea, Gasteizko Montehermoso Kulturunea, Oteiza Museoa, Tabacalera Promoción del Arte Madrid, La Casa Encendida, BlueProject Foundation Barcelona, Centre Cívic Can Felipa, Sant Andreu Contemporani, Atelier Centre d'art contemporain - La Synagogue de Delme Lindre-Basse, Plataforma Revólver Lisboa, D21 Kunstraum Leipzig, Galerie Lisi Hämmerle Bregenz eta AUP Agency of Unrealized Project, besteak beste.



BLACK PATTERNS (Zutabeak), 2021. Arkume-larrua eta metalezko kremailerak. Neurri aldakorrak.

BLACK PATTERNS (Zutabeak), 2021.
Arkume-larrua eta metalezko kremailerak.
Neurri aldakorrak.







BLACK PATTERNS (Zutabeak), 2021. Arkume-larrua eta metalezko kremailerak. Neurri aldakorrak.






Ikuspegi orokorra

BLACK PATTERNS (Pareta), 2021.
Behi-larrua eta metalezko kremailerak.
197 x 100 cm.







T.G. (Azotea saila), 2021. Zuri-beltzeko argazkia, ultra smooth papera. 90 x 60 cm. bakoitza





T.G. (Azotea saila), 2021.
 Zuri-beltzeko argazkia, ultra smooth papera.
 90 x 60 cm. bakoitza







NOTHING YOUNG #2, 2021.
3mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak.
Kotoizko lokarria, metalezko terminalak.
168 x 100 x 21 cm.



NOTHING YOUNG #2, 2021. 3mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak. Kotoizko lokarria, metalezko terminalak. 168 x 100 x 21 cm.

NOTHING YOUNG #1, 2021.
3mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak.
Kotoizko lokarria, metalezko terminalak.
155 x 98 x 19 cm.





NOTHING YOUNG #1, 2021. 3mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak. Kotoizko lokarria, metalezko terminalak. 155 x 98 x 19 cm.



GRADIENS (#1, #2, #3, #4), 2021. 2mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak. Laka gardena. Altzairu ilundua. 160 x 100 cm. bakoitza



GRADIENS (#1, #2, #3, #4), 2021.
2mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra.
Ur bidezko mozketak. Laka gardena. Altzairu ilundua.
160 x 100 cm. bakoitza





GRADIENS (#1, #2, #3, #4), 2021. 2mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak. Laka gardena. Altzairu ilundua. 160 x 100 cm. bakoitza



NOTHING YOUNG #3, 2021. 3mm-ko lodierako gomazko xafla (SBR) + Nylonezko fibra. Ur bidezko mozketak. Kotoizko lokarria, metalezko terminalak.
198 x 78 x 19 cm.







CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725